

## Gutunetik ekintzara (Lisboa 96)

*(Herri eta Hiri Jasangarrien Europako Bigarren Konferentziako partaideek sinatua)*

Europa osoko toki eta eskualde mailako 1.000 agintaritzaren ordezkariak Lisboan (Portugal) bildu ziren 1996ko urriaren 6tik 8ra bitartean, Herri eta Hiri Jasangarrien Bigarren Konferentzian.

Tokiko 21. Agendak Europako 35 herritan izandako prozesuaren egoerari buruzko informazioa jaso eta Aalborgeko lehenengo Konferentzia (Danimarka, 1994ko maiatza) egin zenetik emandako aurrerapausoak ebaluatu zituzten.

Toki bakoitzean egindako praktiken ideiak nahiz esperientziak trukatu eta Europako beste elkarte batzuekin proiektu bateratuetan lankidetzan jarduteko aukerak aztertu zituzten. Tokiko Agendaren prozesuetan konpromisoa duten toki agintarien beharrianak identifikatu eta Kanpainaren hurrengo faseari itxura ematen lagundu zuten.

Lisboako 1996ko Konferentziako partaideek "Gutunetik Ekintzara" izenburuko agiri hau sinatu zuten.

Agiria tokian tokiko esperientzietan oinarriturik dago, Konferentziaren 26 tailerretan azaldutakoaren eta eztabaidaturikoaren arabera. Kontuan hartzen ditu Aalborgeko Gutunean azaldutako printzipioak eta gomendioak, baita honako hauetan azaldutako printzipioak eta gomendioak ere: Erresuma Batuko toki Gobernuaren Kudeaketa Batzaren "Pausoz Pausoko Gida" deritzonean, Europako Batzordeko Hiriko Ingurumeneko Aritu Taldeak Hiri Jasangarriei buruz emandako Txostenean eta Ingurumeneko Toki Ekimenetarako Nazioarteko Kontseiluko Tokiko 21. Agendako Planifikazio Gidaliburuan.

### Lisboako Ekintza Plana: Gutunetik Ekintzara

---

**Toki gobernuaren prestakuntza, Tokiko 21. Agendaren prozesurako**

**Gure ustez, Europako Herriek eta Hiriek Jasangarritasunerantz Sinaturiko Gutuna (Aalborgeko Gutuna) hartzea abiapunturik onenetarikoa da Tokiko 21. Agendaren prozesurako.**

Beharrezkoa da benetako borondate politikoa, Tokiko 21. Agendaren prozesua burutzeko.

Ekimena gidatzeko motibazioa duen pertsona-taldea identifikatuko dugu. Erreferentziazat, zenbait ideia, kontzeptu eta manu erabiliko ditugu, esate baterako, 21. Agenda, Europar Batasuneko Ingurumen Ekintzako 5. Programa, Aalborgeko Gutuna edo Habitatari buruzko II. Konferentzia. Prozesu honetarako, lan-programa eta ekintza egutegia ezarriko dugu, eta faseak zehaztuko ditugu, helburu argiak ezarrita. Aalborgeko Gutuna sinatzean, Europako Herri eta Hiri Jasangarrien Kanpainarekin bat egingo dugu; gainera, toki agintarien edozein saretako partaidetzak, gure iritziz, aholkularitza eta euskarri praktikorik onena eskain dezake, ingurumen kudeaketako eta jasangarritasuneko gaietan.

## **Gure ustez, toki agintaritza Tokiko 21. Agendaren prozesuaren sustatzaile nagusia izan behar da.**

Gure toki agintaritzak bere jarrera izugarriak bertan behera utzi eta dinamizatzailerearen eginkizuna hartu beharko du. Beharrezko sustapena eskaini behar du, gainerako jarduleek hori garatzen ez duten bitartean; halaber, baliabide pertsonalak eta aurrekontua eskaini beharko ditu, bitartekari profesionala kontratatuko du eta, azkenik, lidergoa prozesua menperatu barik gauzatu du.

## **Gure iritziz Tokiko 21. Agendaren prozesurako, toki agintaritzak erabateko konpromisoa hartu behar du, toki hori herria, hiria edo baserriko elkartea izan arren.**

Barruko sareak sortzea oso garrantzitsua da, udal gobernuaren eta administrazioaren konpromisoa lortzeko, baita aukeraturiko karguen nahiz funtzionarioen, sailen eta erantzukizun maila guztiekin konpromisoa lortzeko ere. Udal ordezkari nagusiaren euskarria funtsezkoa da, eta aukeraturiko ordezkariak nahiz funtzionarioak jasangarritasunari loturiko kontzeptuetan trebatzea ere oso garrantzitsua da. Tokiko jasangarritasuna gizarte, ekonomi eta ingurumen mailako jasangarritasunak osatzen duenez, ezinbestekoa da sektoreen arteko hurbilketa egitea.

## **Elkartearen konpromisoa lortzeko estrategiak ezartzea**

### **Gure elkarteko sektoreekin kontsultak egin eta elkarteak eratuko ditugu, lankidetzaren bitartez sinergia lortzeko.**

Elkarteko sektore eta eragile guztien artean Tokiko 21. Agendari buruzko adostasuna lortzea 21. Agendaren (Río, 1992) eskakizuna da, eta gainera, epe luzerako ekintza planari beharrezko indarra eskaintzen dio, inplementatua izateko aukera eduki dezan.

Konpromisario talde baten ezarkuntza gomendatzen dugu (Tokiko 21. Agendaren Foroa). Proiektu zehatzetarako elkarteak sortuko ditugu, helburu argiak finkatuta, eta proiekturako lan-taldeak eratuko ditugu, baita aholkularitza-taldeak eta mahai-inguruak ere. Prozesua diseinatu eta prozedurari, prozesuko etapei eta helburuei buruzko adostasuna bilatuko dugu. Partaideak kontu handiz gidatuko ditugu, baina zalantza-izpirik gabe, prozesu osoan zehar. Azkenik alderdi bakoitzaren interes bereziak zehaztu eta horiekiko elkarriketa mantenduko dugu, euron konfiantza lortzeko, irekiduraren eta gardentasunaren bitartez.

## **21. Agendarekiko hurbilketa eta planifikazioa**

### **Gure etxea antolatzeko ahalegina egingo dugu, kanpoko negoziazioaren printzipioa inplementatuz.**

Gure elkarteak ez ditu bere arazoak esportatu beharko, ingurumen zabalago batera edo etorkizunera. Garapen jasangarriaren etikak kanpoko negoziazioaren printzipioari jarraitzea eskatzen du; horren arabera, gure hirian oreka bat lortu behar da tokiko eskaintzaren eta eskariaren artean, eta, hori ezinezkoa izanez gero, inguruko eskualdearekin, herriarekin edo kontinentearekin negoziazioak hasi behar dira, aukerak, kargak eta erantzukizunak banatu behar izateari buruz.

Elkarteari aurkezten zaizkion aukera guztiak identifikatuko ditugu, arazoaren esportazioa geldiarazteko edo murrizteko, eta etorkizunean inguru zabalagoak erabiltzeko

baldintzak zuzenak diren ala ez egiaztatuko dugu. Gainera, gizarte, ekonomi eta ekologi mailako kontu-ikuskaritzak egingo ditugu gure udalerrian, horrek ingurumenean eta etorkizuneko belaunaldiengan duen eragina ikertzeko.